

Haur batek adierazitako egone- zinaren lekukoek agertutako jokaera prosozialean eragiten duten aldagaiak

Eluska Aizpurua Sanz
Psikologia

Lan honetan jokaera prosozialaren garapenaren alorrean erabiltzen diren hainbat kontzeptu definitzen dira. Gainera hainbat jokaera prosozial aipatzen dira eta horien garapena haurtzaroan zehar nola gertatzen den aztertzen da. Ondoren, jokaera prosozialaren aldagai aurrealeak zein diren esan eta jokaera prosozialarekin daukaten erlazioaren inguruan lortutako emaitza esanguratsuenak aipatzen dira. Azkenik, alor honetan erabiltzen den metodologiak zein arazo aurkezten dituen aztertzen da.

In this article the definition of some concepts used in the study of prosocial behavior is given. Next, different types of prosocial behavior are mentioned and the development of it during childhood is explained. Then, the predicting factors of prosocial behavior and the most important results obtained, regarding the relation between these factors and prosocial behavior, are analyzed. Finally, the problems of the methodology used in the study of prosocial behavior are mentioned.

1. Sarrera

Beharrea aurkitzen den banako batekin arduratzeko gaitasuna garrantzi handiko eginkizuna da giza garapenean; izan ere, pertsonarteko harreman egokitzailak banakoek besteen beharrak ezagutu eta horiei erantzuteko duten gaitasunaren menpe baitaude (Zahn-Waxler eta Radke-Yarrow, 1982). Dena dela, eta Garapenaren Psikologiak jokaera erasokorren ikerketa duela denbora asko hasi bazuen ere, kontsolatu, eman, elkarbanatu eta laguntzea bezalako jokaera positiboaren garapen eta mantenuaren aztertzeari ez zion modu sistematikoan 1970eko hamarkadara arte ekin. Azken urteetan, horiek jokaera prosozial izena hartu dute, hots, beste baten ongizatea areagotzera bideratutako jokaerak lirarteke (Miller, Bernzweig, Eisenberg eta Fabes, 1995).

Hainbat filosofok (Blum, 1980) eta psikologok (Hoffman, 1984; Staub, 1978) aspaldi aipatu zituzten enpatia eta sinpatia jokaera altruistaren determinatzaile gisa. Orokorrean, bestearenganako ardura eta horren egoerarekin bat datozen erreakzio emozionalak agertzen dituzten banakoek, bestearen beharrak eta egonezina desagerrarazteko joera handiagoa aurkeztuko dutela suposatzen da (Eisenberg, Fabes, Miller, Fultz, Shell, Mathy eta Reno, 1989).

Jarraitu aurretik, komeni da garapen prosozialaren ikerketan erabiltzen diren zenbait kontzeptu definitzea.

2. Definizioak¹

2.1. Enpatia (*empathy*): banako batek beste baten egoera emozionalaren aurrean duen, eta horrekin bat datorren, erantzun emozionala. Enpatizatzean, norberaren eta bestearen arteko gutxieneko bereizketa ematen da. Sarritan bi enpatia-mota aipatu ohi dira: kognitiboa eta afektuzkoa.

2.1.a) enpatia kognitiboa (*cognitive empathy, rol-taking*)²: bestearen kontzientzia edo egoeraren ulermen edo ezagutza. Gainerako enpatia-mota guztietarako beharrezko aurrebaldintza.

2.1.b) afektuzko enpatia (edo emozionala; *affective empathy*): beste baten sufrimendu edo egonezin larriaren lekuko izatean sentitzen den enpatia.

Enpatia kognitiboa, bestearen egoeraren ezagutza besterik suposatzen ez duen neurrian, neutrala litzateke; afektuzko enpatian, aldiz, ezaugarri positibo bat aurki liteke, beste banakoarenganako ardura sortzen baita.

1. Eisenberg, N. eta Strayer, J. (1992). *La empatía y su desarrollo*, 15-18. or.

2. Beste baten ikuspegia hartzea fisikoa, soziala zein afektuzkoa izan daiteke. Harrera fisikoak beste baten ikuspegi fisikoa hartzea suposatuko luke eta alor honetan burututako ikerketek adierazten dutenez, jokaera altruista eta beste baten ikuspuntuaren harrera fisikoa modu ahulean soilik daude harremanetan jarriarik (Underwood eta Moore, 1982). Beste baten ikuspegi soziala hartzeak beste horren pentsamendu eta jarrerak identifikatzeko gaitasuna ekarriko luke; beste baten ikuspegi afektiboa hartzeak, aldiz, beste horren emozio eta sentimenduak ulertzea (baina ez, nahi ta nahi ez esperimintatzea) eragingo luke. Beste baten ikuspegi afektiboa hartzea altruismoarekin estuki harremanetan dagoela baieztatzen da (Bryant, 1987).

2.2. Sinpatia (*sympathy*): beste batengatiko benetazko ardura. Orokorrean, bestearen eta norberaren emozioak ez dira berdinak; aldiz, banakoak beste izakia-
ren ezinegona ulertzen du eta sufrimendu hori desagerrarazteko edozein ekintza-
mota gauzatzeko beharra sentitzen du, beraz, ardura-zentroa beste izakia izango
litzateke (Miller, Bernzweig, Eisenberg eta Fabes, 1995, 77. or.).

2.3. Egonezin pertsonala (*personal distress*): sufritzen ari den banakoaren
egoerarekin egokitzen ez den larritasun-sentimendua, norberarengan zentratutako
erreakzio egoista eragiten duena (Hoffman, 1976, 1982). Erantzun-mota honek ez
du bestearengatiko ardura edota jokaera prosozialik eragiten; izan ere, emozioa-
ren fokua norberarengan aurkitzen da eta ez sufritzen ari den banakoarengan.

2.4. Kutsadura emozionala (*emotional contagion*): beste baten negarrari
erantzun-moduan egiten den negarraren bidez neurtzen da. Hots, sufritzen ari den
izakiaren erreakzio bera azaltzen duenez, banakoa sentimendu bera
esperimentatzen ari dela suposatzen da.

2.5. Altruismoa (*altruism*): konstrukto honen definizio gehienek intenzionali-
tatea hartzen dute kontuan jokaera bat altruista den ala ez erabakitzeko orduan
(Chacón, 1985). Beraz, altruismoa «beste bati on egiteko asmoz eta inolako kanpo
saririk jaso gabe» (Macaulay eta Berkowitz, 1970, 3. or.) gauzaten den jokaera
intenzional moduan definitzen da (Rushton, 1980, 7. or.). Iritzi berekoak dira Bar-
Tal, Sharabany eta Raviv (1982, 378. or.), ondokoa adierazten baitute: «ekintza
baten motibazioa ezagutzean soilik esan daitekeela jokaera hori altruista den ala
ez» (González Portal, 1992).

2.6. Jokaera prosoziala (*prosocial behavior*): hitz honek lagundu, elkarbana-
tu, gizarte-arauei jaramon egin, etab., bezalako hainbat fenomeno barne hartzen
ditu. Horiek guztiek kidetasun hau dute: banakoak burututako ekintza giza objektu
baten (gizaki, talde, gizarte, sistema bat edo moralitatea bezalako sinbolo baten)
ongizatea babestu, mantendu edota areagotzera zuzenduta dagoela (Reykowski,
1982, 378. or.).

3. Jokaera prosozialaren kontzeptua

Jokaera prosozialari buruzko literaturan garatutako definizio teoriko anitz aurki
daitezke eta horien artean nolabaiteko adostasuna ikusten da, «jokaera sozial
positibo» bati erreferentzia inplizitu edota esplizitua egiten dioten neurrian. Dena
dela, adostasuna desagertu egiten da ezaugarri zehatzagoetan murgiltzeko
orduan (González Portal, 1992).

Horrela, bada, ikuspegiak bi taldetan bana daitezke: a) jokaera prosoziala defi-
nitzean motibazio-ezaugarriak kontuan hartzen ez dituztenak (Eisenberg, 1982;
Staub, 1978), eta b) motibazioa oinarrizko ezaugarritzat hartzen dutenak, horren
arabera zenbait jokaera-mota definituz (Wispé, 1978; Weir eta Duveen, 1981; Bar-
Tal, 1976). Beraz, 'jokaera prosozial' kontzeptuak laguntzea, elkarbanatzea,
elkarlaguntzea, ematea, etab. bezalako jokaera interpertsonalak barne hartzen
dituela ulertzen da, jokaera horietako bat jokaera altruista izango litzateke (Wispé,
1978; Weir eta Duveen, 1981).

Ikertzaileen arteko adostasun handieneko puntua, hots, jokaera prosoziala beste batentzat onuragarri gertatzen den neurrian jokaera positibotzat jotzea (Staub, 1978), abiapuntutzat harturik, literaturan aurki daitezkeen definizioak bi talde handitan bana daitezke (Chacón, 1986): jokaera kontuan hartzen duten definizioak, batetik, eta motibazioa kontuan hartzen dutenak, bestetik.

– *Motibazioari* lotutako definizioak erabiltzen dituzten ikertzaileek jokaera prosoziala eta altruista bereizten dituzte, azken horretan motibazio altruista izatea beharrezkoa dela argudiatuz (Bar-Tal, 1976; Staub, 1978; Wispé, 1978; Piliavin, Ovidio, Gaertner eta Clark, 1981; Raven eta Rubin, 1983).

– *Jokaera* kontuan hartzen duten autoreek ez dute jokaera prosoziala eta altruistaren artean bereizketarik egiten, biak sinonimo bihurtuz (Hoffman, 1975, 1981; Rushton, 1980; O'Connor, Cuevas eta Dollinger, 1981; Roche, 1982; Cvetkovich, Baumgardner eta Trimble, 1984; etab.).

3.1. Jokaera prosozialaren definizio teorikoa

Horrenbestez, jokaera prosozialaren definizio teoriko egoki bat, adostasun puntuarekin bat letorkeena baina aldi berean aipatutako bi ikuspegiak —motibazioari dagokiona eta jokaerari dagokiona— barne hartuko lituzkeena, ondokoa izan liteke:

*Motibazio altruista duen edota ez duen edozein jokaera sozial positibo
jokaera prosozialtzat onartzen da.*

Beraz, terminoak beste pertsona batentzat onuragarri den edozein jokaera interperpersonal barne hartuko luke (González Portal, 1992).

3.2. Jokaera prosozial motak

Esan bezala, *jokaera prosozial* terminoa gizartean onuragarritzat hartzen den jokaera-multzoa deskribatzeko erabiltzen da, eta horien garapena sustatzen da. Jokaera prosozialaren adibide zehatzak lirakeke, esaterako, behar duenari laguntza eskeintzea, triste dagoena kontsolatzea, elkarbanatzea, elkarlanean aritzea, etab. (Eisenberg eta Mussen, 1989).

«(Pertsona edo beste izaki bati) behar edota bilatzen duen zerbait lortzeko modua eskeintzeari, baliozkoa izateari» *laguntzea* deritzen.

Bi banakok (edo gehiagok) behar edota bilatzen dutena, helburu komun bat, lortzeko elkarri laguntzen diotenean, *elkarlana* gertatu dela esaten da (Hinde eta Gruebel, 1995, 18. orr.).

Elkarbanatzea deritzen «beste bati lehenago norberak zuen objektu bat epe labur zein luzerako eman edota eskeintzeari».

Kontsolatzeak, beste baten behar emozionalen eta min fisikoaren aurrean, hari laguntzeko burututako edozein ekintza ahozko zein fisiko lekarke.

4. Jokaera prosoziala haurtzaroan

Duela gutxi arte uste orokorra izan da ume txikiak ez zirela modu altruistan jokatzeko gai haiengan zentratuta egoteagatik, eta bai gizarteratzeari bai eta garapen kognitiboari esker prosozialago bihurtzen zirela. Teoriko askoren iritziz umeak ez ziren altruismoa erakusteko gai 5-7 urte bete arte; hau da, Edipo edo Elektra konplexuaren gatazka gainditu eta operazio zehatzen estadiora heldu (eta garai horretako ezaugarri den bestearen lekuan jartzeko gaitasuna lortu) arte. Altruismoa agertu aurretik umeek bi gaitasun garatu behar zituztela uste zen; hots: bestearen lekuan jartzeko gaitasuna eta enpatia (edo bestearen emozioak esperimintatzeko gaitasuna) (Miller, Bernzweig, Eisenberg eta Fabes, 1995; Eisenberg, 1982; Vasta, Haith eta Miller, 1996). Bi gaitasun horiek jokaera prosozialerako aurrebaldintza balira, ez litzateke altruismoaren adibiderik aurkituko ume txikiengan haien gaitasunak zentzu horretan gutxi garatuak baitaude. Ikuspegi honek auresaten duenaren aurka, ordea, altruismoa adin goiztiar batean hasten dela adierazten duten ikerketa ugari burutu dira (Vasta, Haith eta Miller, 1996).

Gai honen inguruan egin diren lehenengo lanetako bat Murphy-rena (1937) da. Bertan, 3-4 urteko umeen kasuan sinpatia eta horren jokaeraren adierazleak ikertu ziren. Lan horretan enpatiaren definizioak gaur egun prosozialtzat jotzen diren hainbat jokaera barne hartzen zituen eta ikertzaile horrek umeek aipatutako gaitasuna agertzen zutela ikusi zuen (Radke-Yarrow, Zahn-Waxler, Barrett, Darby, King, Pickett eta Smith, 1976). Jokaera prosozialaren adibideak adin gutxiagoko umeengan ere behatu izan dira. Horrela, esate baterako, haur jaioberriek beste bat negarrez entzutean negar egiten dute (Simner, 1971), baina ez beren negarra grabaturik entzutean—hori enpatia-maila primitibo baten adierazle izan liteke (Martin eta Clark, 1982)— eta 6 hilabete besterik ez duten umeak triste sentitzen dira beste haur bat negarrez ikustean (Hay, Nash eta Pedersen, 1981). Gai honen inguruan burututako ikerketetan lortu den emaitza garrantzitsuenetako bat, 14 hilabetetik gorako haurrak elkarbanatzea eta kontsolatzea bezalako hainbat jokaera prosozial izateko gai direla adierazten duena izan da (Hay eta lag., 1991; Lamb, 1991; Rheingold, 1988; Zahn-Waxler eta lag., 1992). Gainera, bi urteko umeek bai etxean (Dunn eta Kendrick, 1985; Zahn-Waxler, Radke-Yarrow eta King, 1979), bai laborategian (Iannotti, 1985), bai eta jolas-taldeetan ere (Main eta George, 1985; Murphy, 1937), egonezina adierazten duten banakoak kontsolatzeko saiakerak agertzen dituztela ere behatu da eta jokaera horiek jolaskideei zein helduei zuzenduta daude. Orokorrean, haurrek izaten dituzten jokaera prosozialak ez dira zoriz gertatzen eta ez daude umeak egoerari buruz duen ikuspegi egozentrikoan oinarriturik; aldiz, bestearen beharrei egokituta egon ohi dira eta zaintzaileen jokaera prosozialen oso antzekoak izaten dira.

Aipatutako guztia kontuan harturik, beraz, umeak, neurri batean behintzat, bestearen ikuspegiak uste zena baino adin goiztiarragoan ezagutu eta interpretatzeko gai direla esan daiteke, baita laguntza gainerako ugaztunek baino banako-talde handiagoei eta adin goiztiarragoan eskeintzen dietela ere (Hinde eta Gruebel, 1995; Miller, Bernzweig, Eisenberg eta Fabes, 1995; Rheingold eta Emery, 1986).

5. Jokaera prosozialaren aldagai aurre-saleak

Gizabanakoek, beste edozein jokaera baino gehiago, elkarren laguntza behar dute eguneroko bizitzan. Laguntza hori, ordea, ez da beti lortzen, ez haurtzaroan, ez eta bizitzako gainerako arrotan (Eisenberg, 1990). Jokaera prosozialak garatzeko erabakian hainbat aldagai eragiten dute, bai barne-faktoreak, bai eta kanpo-faktoreak ere; hala nola kultura-aldagaiak, banakoaren lehentasunak, nortasun-ezaugarriak, balioak, egoera-aldagaiak, etab. (Mussen eta Eisenberg-Berg, 1977). Faktore horiek lau talde handitan sailkatu ohi dira: banakoari dagozkion aldagaiak eta gizarteratze-aldagaiak, afektuzko aldagaiak, aldagai kognitiboak eta egoera-aldagaiak, hain zuzen ere. Jarraian, lau arlo horietan lortutako emaitza esanguratsuak aipatzen dira:

5.1. Banakoari dagozkion aldagaiak eta gizarteratze-aldagaiak

a) Banakoari dagozkion aldagaiak: nortasun-aldagaiak, adina, sexua eta gizarte-maila.

Hainbat ikerketek aditzera eman dutenez, bai eskainitako jokaera prosozial kopurua (Elliot eta Vasta 1970; Emler eta Rushton 1974), bai eta horien maiztasuna ere (Bryan, 1975; Mussen eta Eisenberg-Berg, 1977), adinarekin areagotzen doaz (Pearl, 1985). Gainera, emakumeek jokaera prosozialak aurkezteko gizona baino joera handiagoa azaltzen dute, gizarteratze-prozesuaren ondorio izan daitekeen arren (Hoffman, 1977; Eisenberg eta Lennon, 1983; Zahn-Waxler eta lag., 1991).

b) Gizarteratze-aldagaiak: guraso zein neba-arreben eragina, afektuzko historia, ikaskideen eragina, eskolaren eragina eta kultur diferentziak.

Alde batetik, umearen arreta beste pertsona batzuen egoera emozionalera zuzentzen duten disziplinak erabiltzea (arrazonamenduaren erabilera), umearen erantzun prosozialekin harremanetan egongo litzateke (Eisenberg-en berrikusketa, 1986). Bestalde, eskolaurreko eta adin handiagoko umeek gerorako jokaera prosozialean eragiten duten zigorak (errudun sentiaraztea, adb.) eta sariak (irrifarre egitea, adb.) ematen dizkiote elkarri (Charlesworth eta Hartup, 1967; Furman eta Gavin, 1989; Hartup, 1983; Vasta, Haith eta Miller, 1996).

5.2. Afektuzko aldagaiak: afektuzko enpatia, erruduntasun-sentimenduak eta banakoraen egoera emozionala.

Dirudenez, badago enpatizatze gaitasuna eta eskainitako jokaera prosozial kopuruaren arteko korrelazio positibo bat (Buckley, Siegel, eta Ness, 1979; Iannotti, 1978; Bar-Tal, Raviv eta Goldberg, 1982). Gainera, erruduntasun-sentimenduak (ezinegona azaltzen duen beste batenganako enpatia-sentimenduak, ezinegonaren eragilea izatearen kontzientziarekin konbinaturik, sorrarazten duen autoestimari ezaren sentimendu ezatseginak –Hoffman, 1998, 91. orr.—) biktimarengatiko ardura eta horrekin harreman sozialak izateko saiakerak areagotuko litzuke (Hoffman, 1994; Estrada-Hollenbeck eta Heatherton, 1998).

5.3. Aldagai kognitiboak: beste banakoaren lekuan jartzeko gaitasuna (enpatia kognitiboa); arau giza moralak; adimena; beste aldagai kognitibo batzuk.

Enpatia kognitiboa (hots, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna), jokaera prosozialaren aldagai aurreale baina, hori gerta dadin ezinbesteko aurrealdintza gisa hartu izan da. Bestalde, arlo honetan burututako ikerketek, jokaera prosozialen kopuruaren eta garapen kognitiboaren artean korrelazio positiboa aurkitu dute (Larsen eta Kellog, 1974).

Gai honen inguruko ikertzaileek bestearen lekuan jartzeko gaitasunak jokaera prosozialaren garapenean duen eginkizun garrantzitsua maiz aipatu izan dute (Hoffman, 1982). Bestearen lekuan jartzeko gai diren (eta, beraz, neurri batean behintzat, bestearen egoera emozionala eta prozesamendu kognitiboa ezagutzen duten) haurrek besteen beharrei erantzuteko joera handiagoa agertuko dutela suposatzen da. Umeak modu altruistan jokatzeko bestearen barne-prozesuen gutxieneko ulermen-maila bat edukitzea beharrezkoa izatea litekeena den arren, jokaera prosozialen garapenerako bestearen lekuan jartzeko gaitasunak zenbaterainoko garrantzia duen ez dago argi oraindik. Izan ere, aipatu bezala, bi urteko haurrak modu prosozialean erantzuteko gai badira, ez dirudi horretarako bestearen lekuan jartzeko gaitasun konplexuak edukitzea ezinbestekoa denik.

Laburbilduz, jokaera prosozialak garatzeko litekeena da bestearen lekuan jartzeko oinarritzko gaitasun bat (esaterako, norbera eta bestearen artean bereizteko gaitasuna, norberaren eta bestearen beharren artean bereizteko gaitasuna) edukitzea beharrezkoa izatea (Hoffman, 1982). Dena dela, eta haur helduagoek agertzen dituzten jokaera prosozial konplexuagoak garatzeko gaitasun kognitibo garatuagoak edukitzea beharrezkoa izan litekeen arren (Eisenberg, 1982), gaitasun horiek ez lirateke jokaera prosozial mota guztietarako ezinbestekoak izango. Aipatutako guztia kontuan hartuz, beraz, honako hau esan daiteke: modu prosozialean jokatzek ez duela beti bestearen lekuan jartzeko gaitasuna eskatzen eta balioak, arauak, besteak eragiten dituen estimulu ezatseginak desagerrarazteko nahia eta antzeko motibazioak modu prosozialean jokatzeko nahikoak izan daitezke; gainera, bestearen lekuan jartzeko gaitasun-mailak jokaera prosozial jakin batzuetarako beharrezkoak izan daitezke, baina beharbada beste batzuetarako ez. Bestalde, askotan jokaera prosoziala aztertzeke erabiltzen diren neurriak ez dira egokiak, bestea laguntzeko nahia baino gehiago obedientzia edota erreko-nozimendu soziala lortzeko nahia adieraziko bailukete; batzuetan ez dira egokiak ikertzen ari den adin-talderako, etab. Are gehiago, beste baten lekuan jartzeko gaitasuna eta jokaera prosozialaren arteko harremana, biak, egoera berean aztertzen badira handiagoa izatea espero da. Gehienetan, ordea, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna pertsona hipotetikoek sufritzen dituzten egoeren inguruan aztertzen da, jokaera prosoziala aztertzen den egoeretatik kanpo (Miller, Bernzweig, Eisenberg eta Fabes, 1995).

5.4. Egoera-aldagaiak

Ikaskuntza sozialaren teorian garrantzi berezia dute egoera-aldagaiek. Ikertzaileen iritziz, jokaerak egoera zehaztutan ikasten dira eta, beraz, egoera-aldagaiak haurren jokaeraren ezaugarri erabakigarriak lirateke. Ondorioz, umeen jokaera egoeraren araberrakoa dela esan daiteke eta, beraz, jokaeraren ulermenerako egoeraren ezagutza ezinbestekoa litzateke (Vasta, Haith eta Miller, 1996).

Egoera-aldagaiak askotarikoak diren arren, zenbait taldetan sailka daitezke jokaera prosozial eta altruistak aurreratzeko. Aldagai guztien artean egoera-aldagaiak ikertu dira gehien eta jarraian aurkezten direnak lortutako emaitza esanguratsuenak dira:

Egoerari berari dagozkion aldagaiak

a.1) *Behatzaileen presentzia*. Orokorrean, behatzaile asko daudenean jokaera altruista gutxitu egiten da (Latané eta Darley, 1970; Latané eta Nida, 1981). Behatzaileen presentziaren eragin hau, ordea, desagertu egiten da laguntza behar duena adiskide bat edo pertsona ezagun bat denean.

a.2) *Egoeraren argitasun-maila*. Egoera argia ez bada eta banakoa bere laguntza beharrezkoa dela ziur ez badago, laguntza eskaintzeko probabilitatea txikiagoa izango da. Egoera horietan, gainera, gainerako behatzaileen jokaera pasiboak banakoaren laguntzeko joera gutxitzea litekeena da. Egoera zenbat eta argiagoa izan, aldiz, orduan eta handiagoa izango da jokaera prosozial edo altruistak eskaintzeko probabilitatea eta orduan eta azkarragoa izango da erreakzioa ere (Clark eta Word, 1974).

Laguntza jasoko duenari dagozkion aldagaiak

b.1) *Behar-maila*. Zenbat eta ziurrago egon besteak laguntza behar duela, orduan eta probabilitate handiagoz eskainiko du laguntza lekukoak, egoera horretan laguntza eskaintzeko gai dela uste badu behintzat. Eskolaurreko umeek ere behar-maila handiagoa dutenei laguntzen diete bereziki (Liebert, Fernández eta Gill, 1969; Fouts, 1972; Zinser, Perry eta Edgar, 1975; Zinser eta Lidiatt, 1976; Midlarsky eta Hannah, 1985), nahiz eta joera hori adinarekin desagertzen doan arren (Ladd, Lange eta Stremmel, 1983).

b.2) *Behatzailearen eta laguntza behar duenaren arteko harremana*. Bai haurrek, bai eta helduek ere, elkarren antza dutenei oso ezberdinak direnei baino laguntza gehiago eskeintzen diete (Dovidio, 1984; Panofsky, 1976; Willis, Feldman eta Ruble, 1977). Adinarekin joera hori desagertzen doa (Eisenberg, 1983) baina, orokorrean, laguntza behar duena senidea, ezaguna edota giza talde berekoa bada, laguntza jasotzeko aukera handiagoa izan ohi du. Gainera, laguntza behar duena eta behatzailea adiskideak badira, laguntza emateko probabilitatea ere handiagoa izanen da (Hartup, 1983).

b.3) *Laguntza behar duen banakoaren nortasuna, sexua eta ezaugarri demografikoak*. Aldagai aurrerale hauei buruzko informazioa nahiko eskasa den arren, argi dago umeek ez dietela denei modu berean laguntzen (Eisenberg, 1983). Ikaskideen artean ezagunak diren umeek laguntza errazago jaso eta ematen dute, hain ezagunak ez direnekin alderatuz (Gottman, Gonso eta Rasmussen, 1975; Masters eta Furman, 1981). Bestalde, bai haurrek, bai eta helduek ere, atsegintzat jotzen dituztenei laguntza errazago eskaintzen diete (Furby, 1978; Leung eta Foster, 1985). Eskolaurreko umeek orokorrean sexu berekoei aurkako sexukoei baino maizago laguntzen diete (Charlesworth eta Hartup, 1967; Marcus eta Jenny, 1977; Eisenberg-Berg eta Hand, 1979), joera hori adinarekin gutxitzen doan arren (Walters, Pearce eta Dahms, 1957; Ladd, Langer eta Stremmel, 1983; Eisenberg

eta Pasternack, 1983). Bestalde, gizon nerabe eta helduek emakumeei gehiago laguntzen dietela ikusi da; emakume nerabe eta helduek, ordea, sexu bereko eta aurkako sexukoei berdin laguntzen diete (Zeldin, Small eta Savin-Williams, 1982; Eagly eta Crowley, 1986).

b.4) Laguntza behar duen banakoari buruzko inferentziak. Behatzaileak laguntza behar duen banakoa egoeraren arduradun ez dela uste badu (esaterako, gaixotasun baten ondorioz triste sentitzen bada), horrekiko sinpatia-sentimenduak eduki eta laguntzea litekeena da. Aldiz, batek beharrean dagoena egoeraren arduradun dela uste badu (esaterako, asko edan duelako gaizki sentitzen bada), horrekiko sinpatia sentitzeko probabilitateak eskasak izango lirateke, eta ziurrenik ez dio laguntzarik eskainiko eta, alderantziz, beharrean dagoenarekiko erreakzio negatiboak arruntak izaten dira (Barnett eta McMinimy, 1988; Eisenberg, 1990; Miller, Bernzweig, Eisenberg eta Fabes, 1995).

Banakoari dagozkion aldagaiak

d.1) Banakoaren uneko egoera psikologikoa; egoeraren eta aurreko esperientzien arteko antzekotasuna, banakoak aurrikusitako kostuak. Azken hau egoera-aldai garrantzitsuenetako bat da. Bai umeei, bai eta helduek ere, kontuan hartzen dituzte, alde batetik, laguntza eskaintzeak suposatzen dituen kostuak eta, bestetik, besteari ekarriko dion ongizatea (Dovidio, 1984; Piliavin, Dovidio, Gaertner eta Clark, 1981; Mosbacher, Gruen eta Rychlak, 1985; Eisenberg, Fabes, Miller, Fultz, Shell, May eta Reno, 1989). Dena dela, norberarentzako kostuek bestearentzako onurak baino eragin handiagoa izatea litekeena da (Dovidio, 1984; Piliavin eta lag., 1981). Oro har, kostuak handiak izango direla uste bada, horrek laguntza eskaintzeko probabilitatea gutxituko luke (Piliavin eta lag., 1982). Hala ere, aldagai honen eragina oso konplexua da, zeren eta, laguntzearen kostuez gain, banakoak ez laguntzearen kostuak (hots, erruduntasuna, autoestima gutxitzea, bestearen egoerak eragiten duen larritasuna, etab.) ere kontuan izan behar ditu, bai eta biktimak, laguntza ez jasotzekotan, sufrituko dituen ondorio negatiboak ere.

6. Arazo metodologikoak

Garapen moralaren ikerketan erabiltzen diren kontzeptuak ezin dira jokaera simple eta behagarrien bidez neurtu. Izan ere, egoera konplexuen adierazleak dira (esate baterako, jokaera bat altruistatzat onartzeko jokaera hori gauzatzen duen banakoaren motibazioa ezagutu behar da eta sarritan horrek ere ez du jokaeraren barne-zergatia ezagutzen edota ezin du azaldu). Beraz, egoera horien ezaugarriak ikertzeko zeharkako frogak erabili behar izaten dira.

Eisenberg-ek 1986an egindako berrikusketan azaltzen duen bezala, enpatiaren inguruan burututako ikerketa gehienek enpatiaren neurri hauetako bat erabili dute, lehenago aipatutako arazoa (hots, jokaera behagarrien bidez neurtzeko aukera ez izateari dagokiona) ekiditeko asmoz: **(1) Banako hipotetiko baten egoera emozionalari buruzko informazioa duten marrazkiak ikusi edota istorioak entzun ondoren, normalean esperimendatzaileari zuzendutako erantzun emozionalen ahozko edota bestelako banakako informeak. (2) Egonezin-egoera hipotetikoetan (adb., laguntza behar duen norbait ikusi ondoren), normalean arkatx eta paperaren**

bidez, emandako erantzun emozionalen **auto-informeak**. **(3) Behatzaileen puntuazioak** banakoak beste baten egoera emozional (hipotetikoaren) aurrean dituen aurpegiko adierazpenei edota ahots-tonuari dagokienez. **(4) Sinpatia** edota enpatia neurtzeko bereziki diseinaturiko **auto-erregistroak**, «nire lagunen arazoetan emozionalki inplikatu ohi naiz» edo «jendea negarrez ikusteak tristetu egiten nau», eta antzeko itemak aurkezten dituztenak. **(5) Beste baten egonezinen aurrean aurkeztutako erantzun fisiologikoak**. **(6) Irakasle zein ikaskideek banakoaren enpatia/sinpatiari buruz egindako informeak**.

Dena dela, aipatutako neurri horiek guztiek hainbat arazo aurkezten dituztela esan beharra dago. Esate baterako, marrazkiak eta istorio hipotetikoak banakoaren enpatia eragiteko adinakoak ez izatea gerta liteke; hots, ume baten emozioak marrazki batetik bestera, hain azkar, aldatzeak zaila dirudi eta, gainera, horrelako frogetan haurrak ikertzailearen sexu berekoak direnean aurkako sexuak direnean baino puntuazio altuagoak lortzen dituztela ikusi da. Auto-informeei dagokienez, (haurrentzat bereziki) zaila suerta daiteke bizi izandako sentimendu zehatzak azaltzea; era berean, froga horretan banakoak gizarte-mailan espero den bezala erantzuteko duen nahiak eragitea gerta daiteke (esate baterako, froga hauek erabiliz sexuaren arabera ezberdintasunek nesken alde jotzen dute; enpatiaren beste neurri fisio-logikoak erabiliz, ordea, ez dira ezberdintasun horiek aurkitu. Horrek, ikerketa-gai honetan lortutako emaitzetan giza estereotipoek duten eraginaren susmoa baieztatu luke – Eisenberg eta Lennon, 1983—).

Erreferentzia bibliografikoak

- Bar-Tal, D. (1976): *Prosocial behavior*, Halsted Press, New York.
- ; Raviv, A. eta Goldberg, M. (1982): “Helping behavior among preschool children: an observational study”, *Child Development*, **53**, 396-402.
- Bar-Tal, D.; Sharabany, R. eta Raviv, A. (1982): “Cognitive basis of the development of altruistic behavior”, V. J. Darlega eta J. Grzelak (argk.), *Cooperation and helping behavior*, Academic Press, New York.
- Barnett, M. A. eta McMinimy, V. (1988): “Influence of the reason for the other’s affect on preschoolers’ empathy response”, *Journal of Genetic Psychology*, **149**, 153-162.
- Blum, L. A. (1980): *Friendship, altruism and morality*, Routledge-Kegan Paul, London.
- Bryan, J. H. (1975): “Children’s cooperation and helping behaviors”, E. M. Hetherington (arg.), *Review of child development research*, University of Chicago Press, Chicago, 127-181.
- Bryant, B. K. (1987): “Mental health, temperament, family and friends: perspectives on children’s empathy and social perspective taking”, N. Eisenberg eta J. Strayer (argk.), *Empathy and its development*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Buckley, N.; Siegel, L. S. eta Ness, S. (1979): “Egocentrism, empathy, and altruistic behavior”, *Developmental Psychology*, **15**, 329-330.
- Clark, R. D. eta Word, L. E. (1974): “Where is the apathetic bystander? Situational characteristics of the emergency”, *Journal of Personality and Social Psychology*, **29**, 279-287.
- Cvetkovich, G.; Baumgardner, S. R. eta Trimble, J. E. (1984): *Social psychology: Contemporary perspectives on people*, Holt, Rinehart and Winston, New York.
- Chacón, F. (1985): *Altruismo y Conducta de Ayuda: Una Taxonomía de Episodios Sociales*, Doktoradutza Tesia, Universidad Complutense, Madrid.

- , (1986): “Una aproximación al concepto psicosocial de altruismo”, *Boletín de Psicología*, **11**, 41-62.
- Charlesworth, R. eta Hartup, W. W. (1967): “Positive social reinforcement in the nursery school peer group”, *Child Development*, **38**, 993-1002.
- Dovidio, J. F. (1984): *Helping behavior and altruism: an empirical and conceptual Overview*, Academic Press, New York.
- Dunn, J., eta Kendrick, C. (1985): *Siblings: Love, envy, and understanding*, Harvard University Press, Cambridge, MA.
- Eagly, A. H. eta Crowley, M. (1986): “Gender and helping behavior: A meta-analytic review of the social psychological literature”, *Psychological Bulletin*, **100**, 283-308.
- Eisenberg, N. (1982): “The development of reasoning regarding prosocial behavior” (9. atala), N. Eisenberg (argk.), *The development of prosocial behavior*, Academic Press, New York.
- , (1983): “Children’s differentiations among potential recipients of aid”, *Child Development*, **3**, 594-602.
- , (1986): “Prosocial emotion: methods and current research”, N. Eisenberg, *Altruistic emotion, cognition and behavior*, Lawrence Erlbaum Associates, Hillsdale, NJ, 30-58.
- , (1990): “Prosocial development in early and mid-adolescence”, R. Montemayor; G. R. Adams eta T. P. Gullotta (argk.), *From childhood to adolescence: a transitional period?*, Sage, Newbury Park, CA.
- Eisenberg, N.; Fabes, R. A.; Miller, P. A.; Fultz, J.; Shell, R.; Mathy, R.M. eta Reno, R. R. (1989): “Relation of sympathy and personal distress to prosocial behavior: A multimethod study”, *Journal of Personality*, **57**, 55-66.
- Eisenberg, N. eta Lennon, R. (1983): “Sex differences in empathy and related capacities”, *Psychological Bulletin*, **94**, 100-131.
- Eisenberg, N. eta Mussen, P.H. (1989): *The roots of prosocial behavior in children*, Cambridge University Press, New York.
- Eisenberg, N. eta Pasternack, J. F. (1983): “Inequities in children’s prosocial behavior: Who do children assist?”, R. L. Leahy (argk.), *The child’s construction of social inequity*, Academic Press, New York, 179-205.
- Eisenberg, N. eta Strayer, J. (argk.). (1992): *La Empatía y su Desarrollo*, (Originala: Empathy and its development, 1987), Editorial Desclee de Brouwer, Bilbo.
- Eisenberg-Berg, N. eta Hand, M. (1979): “Content of preachings and power of the model/preacher: The effect on children’s generosity”, *Developmental Psychology*, **15**, 128-137.
- Eisenberg-Berg, N. eta Lennon, R. (1980): “Altruism and the assessment of empathy in the preschool years”, *Child Development*, **51**, 552-557.
- Elliot, R. E., eta Vasta, R. (1970): “The modelling of sharing: effects associated with vicarious reinforcement, symbolization, age, generalization”, *Journal of Experimental Child Psychology*, **10**, 8-15.
- Emler, N. P. eta Rushton, J. P. (1974): “Cognitive-developmental factors in children’s generosity”, *British Journal of Social and Clinical Psychology*, **13**, 277-281.
- Estrada-Hollenbeck, M. eta Heatherton, T. F. (1998): “Avoiding and Alleviating Guilt through Prosocial Behavior”, Bybee (arg.), *Guilt and children*, Academic Press, San Diego, CA, 10 atala.
- Fouts, G. T. (1972): “Charity in children: The influence of “charity” stimuli and an audience”, *Journal of Experimental Child Psychology*, **13**, 303-309.
- Furby, L. (1978): “Sharing: Decisions and moral judgments about letting others use one’s possessions”, *Psychological Reports*, **43**, 595-609.

- Furman, W. eta Gavin, L. A. (1989): "Peers' influence on adjustment and development", T. J. Berndt eta G. W. Ladd (argk.), *Peer relationships in child development*, Wiley, New York.
- González Portal, M. D. (1992): *Conducta prosocial: evaluación e intervención*, Ediciones Morata, Madrid.
- Gottman, J.; Gonso, J. eta Rasmussen, B. (1975): "Social interaction, social competence and friendship in children", *Child Development*, **46**, 709-718.
- Hartup, W. W. (1983): "Peer relations", E. M. Hetherington (arg.), *Handbook of child Psychology, 4. alea: socialization, personality, and social development*, Wiley: New York.
- Hay, D. F.; Caplan, M.; Castle, J., eta Stimson, C. A. (1991): "Does sharing become increasingly "rational" in the second year of life?", *Developmental Psychology*, **27**, 987-993.
- Hay, D. F.; Nash, A. eta Pedersen, J. (1981): "Responses of six-month-olds to the distress of their peers", *Child Development*, **52**, 122-128.
- Hinde, R. A. eta Gruebel, J. (1995): "Introducción", R. A. Hinde eta J. Gruebel (argk.), *Cooperación y conducta prosocial*, (Jatorrizkoa: Cooperation and Prosocial Behavior, 1991), Visor, Madrid.
- Hoffman, M. L. (1975): "Altruistic behavior and the parent-child relationship", *Journal of Personality and Social Psychology*, **31**, 937-943.
- , (1976): "Empathy, role-taking, guilt, and development of altruistic motives", T. Lickona (arg.). *Moral development and behavior: Theory, research and social issues*, Holt, Rinehart, and Winston, New York. 124-143.
- , (1977): "Sex differences in empathy and related behaviors", *Psychological Bulletin*, **84**, 712-722.
- , (1981). "The development of empathy", J. P. Rushton eta R. M. Sorrentino (argk.), *Altruism and helping behavior*, Lawrence Erlbaum Associate, Hillsdale, NJ.
- , (1982): "Development of prosocial motivation: Empathy and guilt", N. Eisenberg (arg.), *The development of prosocial behavior*, Academic Press, New York, 218-231.
- , (1984): "Interaction of affect and cognition in empathy", C. E. Izard (arg.), *Measuring emotions in infants and children*, Cambridge University Press, Cambridge, 279-296.
- Hoffman, M. L. (1994): "Empathy, role-taking, guilt, and development of altruistic motives", B. Puka (arg.), *Reaching out: Caring, altruism, and prosocial behavior. 7. alea, Moral development: A compendium*, Garland, New York, 196-218.
- , (1998): "Varieties of empathy-based guilt", J. Bybee (arg.), *Guilt and children*, Academic Press, San Diego, CA, 4. atala.
- Iannotti, R. J. (1978): "Effect of role-taking experience on role-taking, empathy, altruism and aggression", *Developmental Psychology*, **14**, 119-124.
- , (1985): "Naturalistic and structured assessments of prosocial behavior in preschool children: the influence of empathy and perspective taking", *Developmental Psychology*, **21(1)**, 46-55.
- Ladd, G.W.; Langer, G. eta Stremmel, A. (1983): "Personal and situational influences on children's helping behavior: Factors that mediate on compliant helping", *Child Development*, **54**, 488-501.
- Lamb, S. (1991): "First moral sense: aspects of and contributors to a beginning morality in the second year of life", W. M. Kurtines eta J. L. Gewirtz (argk.), *Handbook of moral behavior and development, 2. alea: Research*, Erlbaum, Hillsdale, NJ.
- Larsen, G. Y., eta Kellog, J. A. (1974): "A developmental study of the relation between conservation and sharing behavior", *Child Development*, **45**, 849-851.

- Latané, B. eta Darley, J. (1970): *The unresponsive bystander: Why doesn't he help?*, Appleton, New York.
- Latané, B. eta Nida, S. (1981): "Ten years of research on group size and helping", *Psychological Bulletin*, **89**, 308-324.
- Leung, J. J. eta Foster, S. F. (1985): "Helping the elderly: A study on altruism in children", *Child Study Journal*, **15**, 293-309
- Liebert, R. M.; Fernández, L. E. eta Gill, L. (1969): "Effects of a "friendless" model on imitation and prosocial behavior", *Psychonomic Science*, **16**, 81-82.
- Macaulay, J. eta Berkowitz, L. (argk.) (1970): *Altruism and helping behavior*, Academic Press, New York.
- Main, M. eta George, C. (1985): "Responses of abused and disadvantaged toddlers to distress in agemates: A study in the day care setting", *Developmental Psychology*, **21**, 407-412.
- Marcus, R. F. eta Jenny, B. (1977): "A naturalistic study of reciprocity in the helping behavior of young children", *Alberta Journal of Educational Research*, **23**, 195-206.
- Martin, G. B. eta Clark, R. D. (1982): "Distress crying in neonates: species and peer specificity", *Developmental Psychology*, **18**, 3-9
- Masters, J. C. eta Furman, W. (1981): "Popularity, individual friendship selection and specific peer interaction among children", *Developmental Psychology*, **17**, 344-350.
- Midlarsky, E. eta Hannah, M. E. (1985): "Competence, reticence, and helping by children and adolescents", *Developmental Psychology*, **21**, 534-541.
- Miller, P. A.; Bernzweig, J.; Eisenberg, N. eta Fabes, R. A. (1995): "El desarrollo y socialización de la conducta prosocial". R. A. Hinde y J. Gruebel (argk.). *Cooperación y conducta prosocial*, (Jatorrizkoa: Cooperation and Prosocial Behavior, 1991), Visor, Madril.
- Mosbacher, B. J.; Gruen, G. E. eta Rychlak, J. F. (1985): "Incentive value: The overlooked dimension in childhood sharing", *Journal of Genetic Psychology*, **146**, 197-204.
- Murphy, L.B. (1937): *Social behavior and child personality*, Columbia University Press, New York.
- Mussen P. eta Eisenberg-Berg, N. (1977): *Roots of caring, sharing and helping: the development of prosocial behavior in children*, Freeman, San Francisco.
- O'Connor, M.; Cuevas, J. eta Dollinger, S. (1981): "Understanding motivation behind prosocial acts: A developmental analysis", *The Journal of Genetic Psychology*, **139**, 267-276.
- Panofsky, A. D. (1976): "The effect of similarity/dissimilarity of race and personal interests on empathy and altruism in second graders", *Doktoradutza tesia*, Dissertation Abstracts International, Los Angeles.
- Pearl, R. (1985): "Children's understanding of others' need for help: effects of problem explicitness and type", *Child Development*, **56**, 735-745.
- Piliavin, J. A.; Dovidio, J. F.; Gaertner, S. L. eta Clark, R. D. (1981): *Emergency Intervention*, Academic Press, New York.
- , (1982): *Responsive bystanders: The process of intervention*, Academic Press, New York.
- Radke-Yarrow, M.; Zahn-Waxler, C.; Barrett, D.; Darby, J.; King, R.; Pickett, M. eta Smith, J. (1976): "Dimensions and correlates of prosocial behavior in young children", *Child Development*, **47**, 118-125,
- Raven, B. H. eta Rubin, J. Z. (1983): *Social psychology* (2. arg.), John Wiley and Sons, New York.

- Reykowski, J. (1982): "Development of prosocial motivation: a dialectic process", N. Eisenberg (arg.), *The development of prosocial behavior*, Academic Press, New York, 15. atala.
- Rheingold, H. L. (1988): "The infant as a member of society", *Acta Paediatrica Scandinavica*, **77**, 9-20.
- , eta Emery, G. N. (1986): "The Nurturant Acts of Very Young Children", D. Olwens, J. Block eta M. Radke-Yarrow (argk.), *Development of Antisocial and Prosocial Behavior: research theories and Issues*, Academic Press, Orlando, 75-96.
- Roche, R. (1982): "Los orígenes de la conducta altruista en niños: Aspectos educativos y televisión en familia", *Infancia y Aprendizaje*, **19-20 (3-4)**, 101-114.
- Rushton, J. P. (1980): *Altruism, socialization and society*, Prentice-Hall, Englewood Cliffs, New Jersey.
- Simner, M. L. (1971): "Newborn's responses to the cry of another infant", *Developmental Psychology*, **5**, 136-150.
- Staub, E. (1978): "Predicting prosocial behavior: A model for specifying the nature of personality-situation interaction", L. Pervin eta M. Lewin (argk.), *Internal and external determinants of behavior*, Plenum Press, New York.
- Underwood, B. eta Moore, B. (1982): "Perspective-taking and altruism", *Psychological Bulletin*, **91**, 143-173.
- Vasta, R.; Haith, M.M. eta Miller, S.A. (1996): *Psicología infantil*, (Jatorrizkoa: Child Psychology, 1992), Editorial Ariel Psicología, Bartzelona.
- Walters, J.; Pearce, D. eta Dahms, L. (1957): "Affectional and aggressive behavior of preschool children". *Child Development*, **28**, 15-26.
- Weir, K. eta Duveen, G. (1981): "Further development and validation of the prosocial behavior questionnaire for use by teachers", *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, **22(4)**, 37-374.
- Willis, J. B.; Feldman, N.S. eta Ruble, D. N. (1977): "Children's generosity as influenced by deservedness of reward and type of recipient", *Journal of Educational Psychology*, **69**, 33-35.
- Wispé, L. G. (1978): *Altruism, sympathy and helping. Psychological and sociological Principles*, Academic Press, New York.
- Zahn-Waxler, C. eta Radke-Yarrow, M. (1982): "The development of altruism: alternative research strategies", N. Eisenberg (arg.), *The development of prosocial behavior*, Academic Press, New York, 5. atala.
- , eta King, R. A. (1979): "Child-rearing and children's prosocial initiations toward victims in distress", *Child Development*, **52**, 122-128.
- Zahn-Waxler, C.; Radke-Yarrow, M.; Wagner, E. eta Chapman, M. (1992): "Development of concern for others", *Developmental Psychology*, **28**, 1038-1047.
- Zahn-Waxler, C.; Robinson, J. eta Emde, R. (1991ko martxo): "The development and heritability of empathy", *Society of Research in Child Development-eko kongresuan aurkeztutako posterra*, Seattle, WA.
- Zeldin, R. S.; Small, S. A. eta Savin-Williams, R. C. (1982): "Prosocial Interactions in Two Mixed Sex Adolescent Groups", *Child Development*, **53**, 1492-1498.
- Zinser, O.; Perry, J. S. eta Edgar, R. M. (1975): "Affluence of the recipient, value of donations and sharing behavior in preschool children", *Journal of Psychology*, **89**, 301-305.
- Zinser, O. eta Lidiatt, E. W. (1976): "Mode of recipient definition, affluence of the recipient and sharing behavior in preschool children", *Journal of Genetic Psychology*, **129**, 261-266.